



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea



[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)

2023  
2024

# IKASTURTEKO **MEMORIA**





<b>1. Sarrera eta aipamen historikoa.....</b>	<b>4</b>
<b>2. Txosten akademikoa.....</b>	<b>10</b>
• <b>Graduak .....</b>	<b>11</b>
• <b>Unibertsitate masterrak.....</b>	<b>12</b>
• <b>Etengabeko prestakuntzako titulazioak .....</b>	<b>13</b>
• <b>Profesionalentzako prestakuntza.....</b>	<b>13</b>
• <b>Ikerketa eta transferentzia:.....</b>	<b>14</b>
◦ <b>Ikerketa .....</b>	<b>15</b>
◦ <b>Transferentzia eta aholkularitza .....</b>	<b>16</b>
◦ <b>Argitalpenak eta zabalkundea .....</b>	<b>18</b>
◦ <b>Hirugarren zikloa: doktorego programa.....</b>	<b>18</b>
<b>3. Egoera ekonomiko-finantzarioa.....</b>	<b>19</b>
<b>4. Kudeaketa organoak .....</b>	<b>21</b>
<b>5. Fakultateko langileak.....</b>	<b>23</b>

# AURKIBIDEA







# 1. SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA



**Memoria honen helburua 2023-2024 ikasturtean egindakoak, ikasitakoak eta erronkak jaso eta partekatzea da, gure hezkuntza komunitate eta kooperatiba komunitate osoaren inplikazioa eta konpromisoa islatuz. Egunerokoan, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen dugunok gizartean eragiteko nahia dugu, pasioz, leku desberdinetatik eta modu polifonikoan. Horregatik, eta ezer baino lehen, zorionak eta eskerrik asko HUHEZIKo kide guztioi!**

Laburpenera etorrira, 2023-2024 ikasturteko zenbait arlotako gertakizun nabarmenenak jasoko ditugu datozen lerroetan.

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu ikasketetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Humanitate Digital Globaletan, 1.139 ikasle izan ditugu guztira. Aurten ere, bigarren graduak edo aipamenak eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini dugu Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan. Guztira, modalitate erdipresentzialean, 284 ikasle izan ditugu.



Unibertsitate masterren arloan, 2023-2024 ikasturtean, 216 ikasle izan ditugu aurten Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaini dituen lau unibertsitate masterretan: Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra (2. edizioa); DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (15. edizioa) –bi modalitatetan: duala eta erdipresentziala–; Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra –LIT masterra, TeamLabs-ekin elkarlanean– (4. edizioa); eta Kooperatibismoa eta Kudeaketa Sozioenpresariala unibertsitate masterra (4. edizioa).

Etengabeko Prestakuntzan, titulazio berriak ere eskaini ditugu 2023-2024 ikasturtean. Haien artean, aipatzekoak dira, batetik, Euskal Kulturaren Eragiletza master propioa, eta, bestetik, Mondragon Esperientzia Kooperatiboaren Gakoak nazioarteko ikastaroa, zeina lehenengo aldiz ingelesez eskaini baitugu. Guztia, 44 profesional izan ditugu gure artean. Programa horietako batzuk elkarlanean eskaini ditugu, Otalora, OlatuKoop, MGEP, Enpresagintza edo TeamLabs-ekin batera. Azpimarratzekoak dira, halaber, profesionaleri zuzendutako ikastaro guztiak.

Sei ikastaro labur ere eskaini ditugu, modalitate irekian, eta 102 ikaslek parte hartu dute. Ikastaro horiez gain, zenbait prestakuntza eskaerari ere erantzun diogu. Kooperatibismoarekin lotuta, guztira 103 formakuntza saio egin ditugu, eta 2.060 ikaslek parte hartu dute. Hezkuntzaren eremuko prestakuntza proiektuetan, aldiz, 2.139 lagunek hartu dute parte.

Hirugarren ziklora begira, aipatzekoa da doktorego programaren barruan oinarritzko ikerketa prestakuntza eskaini dugula aurten ere. 2023-2024 ikasturtean, 27 doktoregai matrikulatu eta tesi bat aurkeztu da.




Aurrerapausoak eman ditugu ikasleen mugikortasunean; hala, 2023-2024 ikasturtean, 106 ikasle joan dira atzerrira, eta 57 ikasle Espainiako estatura. Graduko curriculum praktikei erreparatuta, guztira 1.205 egonaldi egin dituzte ikasleek 2023-2024 ikasturtean, ikastetxe, enpresa edo erakundeetan. Incoming ikasleei dagokienez, atzerriko 20 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Halaber, Fakultateak jarraitzen du diziplinarteko ikerketa eta transferentzia proiektu kolaboratiboen aldeko apustu sakona egiten. Hezkuntza berrikuntzaren alorrean, Euskal Herrian erreferentziatzko erakundea da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, eta horren adibide dira hezkuntza sare guztiekin garatu diren transferentzia proiektuak. 124 ikastetxetako 1.600 profesional inguruk hartu dute parte proiektu horietan, eta haien garapen profesionalerako gune pribilegiatu bihurtu dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bideratutako transferentzia ekimen horiek. Proiektuak, gainera, hezkuntza etapa guztietan kokatu dira: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Diziplinartekotasuna ardatz hartuta, digitalizazio eta STEM proiektuak, euskara eta eleaniztasuna, kultur transmisioa, gizarte erronkak eta kohesio soziala, edo hezkuntza prozesu eta metodologia berritzaileekin lotutako proiektuak garatu ditugu. Modu horretan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ekarpen esanguratsua egin die EAEko hezkuntzak dituen erronka estrategikoei, hezkuntza berrikuntzaren arloan duen kokapenari esker eta administrazio eta hezkuntza eragile guztiekin elkarlanean.

Hezkuntzan ez ezik, kooperatibismoaren eta gizarte berrikuntzaren alorrean ere lanean dihardu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Kasu horietan ere, askotariko eragileekin elkarlanean garatu ditugu, besteak beste, lankidetzak, kooperatibismoa, ekintzailetza sozial kooperatiboa, hiritartasuna edo gobernantza eredu berriak sustatzeko egitasmoak. Egitasmo guztietan gizarte inpaktua ardatz nagusia bada ere, aipatzekoak dira hezkuntza berrikuntzaren zein gizarte berrikuntzaren eremuetan hemengo zein nazioarteko deialdi lehiakorretan lortutako ikerketa proiektuak eta haien haritik etorritako argitalpenak.

2023-2024 ikasturtean, guztira 74 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 31 artikulua, 9 liburu eta 16 liburu kapitulu argitaratu ditugu inpaktu altu eta ertaineko aldizkari edo argitaletxeetan. Haietatik 21 euskaraz izan dira, eta 27 sarbide irekian.





Gure –HUHEZI Kooperatiba Elkartearen– helburua komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala bermatzea da, gauden testuinguru eta espazioetan. Horretarako, pertsonen garapenerako ereduak aurrerapausoak eman ditugu; gaikuntza plana eskaini dugu: gai gakoak, hizkuntzak, ikerketak eta eskaera pertsonalizatuak, besteak beste. Bizitza unibertsitarioan ere aukera berriak eskaini ditugu: hala, besteak beste, euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko kultura ekimenak bultzatu, Huhezinema Film Laburren Jaialdiaren 17. edizioa antolatu, eta kirol eskaintza esanguratsua eskaintzen jarraitu dugu.


Horiek guztiak erronka izan dira guretzat, baina, aldi berean, ikaskuntza ere bultzatu dugu. Egin ditugunek ikasteko aukera eskaini digute, aurrera egiteko aukera. Eta, bide horretan, gure Plan Estrategiko berria diseinatu dugu 2023-2024 ikasturtean: partekatua, dinamikoa, zaindua, etorkizunari aurre egiteko prestatzen lagunduko diguna. Etorkizunari begira, jauzi bat emango dugu: bizitza osoko ikaskuntza eta ikerketarako fakultatea izateko eta etorkizunari aurre egiteko prest dagoen fakultate kooperatiboa eta talde konprometitua izaten jarraitzeko. Finean, gizartean eragiten jarraitzeko.



# AIPAMEN HISTORIKOA

## IKUSPEGI KRONOLOGIKOA

### DATA ESANGURATSUAK





## 2010

- Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate masterra - Ekomu
- Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate masterra - Berrimet

## 2011

- Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua

## 2012

- Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa



## 2013

- Aretxabaletako campusaren inaugurazioa
- Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programa

## 2014

- AUDIT Kalitate sistema
- Hezkuntza gradu osoak online
- Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa unibertsitate masterra - MCOOP

## 2019

- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra - Lit
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra modalitate erdi-presentzialean
- Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua
- Hezkuntza Kooperatiboa espezializazio diploma

## 2018

- KoLaborategiaren sorrera
- Unibasq-en akreditazio instituzionala

## 2017

- Berrikuntza metodologikoa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetan

## 2016



- Fakultatearen 40. urteurrena

## 2015

- Berrikuntza metodologikoa Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan

## 2020

- Dorleta eraikinaren inaugurazioa
- Humanitate Digital Globalak gradua - HDG
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra - MCOOP
- Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma - CLO
- Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma - ROL
- Prestakuntza Pedagogikoa Gastronomia eta Ostalaritza Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Conexão Mundo. Brasil)
- Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumen, Jasangarritasun eta Energiaren Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Conexão Mundo. Brasil)

## 2021

- Arreta Psikologikorako Zerbitzua (APZ) abian
- Pertsonen Garapenerako Eredu (PGE) berria
- AS Fabrik campusaren inaugurazioa

## 2022

- Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra
- Eskola eraldatzeko pedagogian eta kudeaketan espezializazio diploma
- Ikus-entzunezko Ekintzailertzan eta Berrikuntzan aditu diploma
- Prestakuntza Pedagogikoa Komunikazio eta Marketineko Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma (Conexão Mundo. Brasil)

## 2023

- Euskal Kulturaren Eragiletzan etengabeko prestakuntzako masterra
- Aniztasunari Erantzuteko Arreta Zerbitzua abian
- Mondragon Esperientzia Kooperatiboaren Gakoak nazioarteko ikastaroa
- Unibasq-en akreditazio instituzionala berri



## 2. TXOSTEN AKADEMIKOA



4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



5 GENERO BERGINTASUNA



8 LAN OLUMETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



11 HIRI ETA KOMUNITATE IRALINKORRAK



17 ITUNAK HEBERUAK LORTZEKO





2023-2024 ikasturtean, jarduera hauek garatu ditugu lau graduatan:

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatan, alternantzia ereduarekin jarraitu dugu laugarren mailan. AS Fabriken, Lehen Hezkuntzako Berrikuntza Digitala aipamena inplementatu dugu 3. mailan.
- Ikus-entzunezko Komunikazioaren graduan, bi ibilbide inplementatzen jarraitu dugu: Ikus-entzunezko Sormena eta Komunikazio Digitala, azken hori eredu DUALean. Ibilbide DUALeko bigarren promozioa graduatu da.
- Humanitate Digital Globalak graduan - HDG, laugarren maila inplementatu dugu, eta ikasleen lehen promozioa graduatu da: guztira, 18 ikasle graduatu dira.

Datuetera etorrira, 2023-2024 ikasturtean, eta askotariko modalitateak kontuan hartuta, graduko 1.423 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; haietatik 452 lehen mailako ikasle berriak izan dira. Honela daude banatuta ikasleak graduka:

Graduak	1.423 ikasle 918 emakumezko 505 gizonzko
Haur Hezkuntza	345
Lehen Hezkuntza	819
Ikus-entzunezko Komunikazioa	184
Humanitate Digital Globalak - HDG	75

Graduko curriculum praktikei erreparatuta, guztira 1.205 egonaldi egin dituzte ikasleek 2023-2024 ikasturtean (haietatik 50 atzerrian), ikastetxe, enpresa edo erakundeetan. Haietatik 153 alternantzia ibilbidean egin dira, eta 10 ibilbide DUALean. Gainera, curriculumetik kanpoko beste 89 praktikaldi ere egin dituzte ikasleek ikasturte honetan.

Mugikortasun programari dagokionez, 2023-2024 ikasturtean, 173 ikaslek parte hartu dute mugikortasun programan: 116 ikasle joan dira atzerria eta 57 Espainiako estatura. Incoming ikasleei dagokienez, atzerriko 20 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Portoko Politeknikoko Hezkuntza Fakultatearekin batera diseinatutako *Dyslexia & Foreign Languages Teaching BIP* programan, berriz, 6 ikaslek parte hartu dute.

Ikasle berrientzako orientazio ekintzei dagokienez, ikasturte honetan, ate irekien ekitaldiak egin ditugu lau graduatan, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bilboko campusetan. Guztira, 992 parte hartzaile izan ditugu, 413 ikasle eta 579 laguntzaile. Antolatutako onarpen probetan, bestalde, 547 ikaslek parte hartu dute.

Graduarekin lotutako beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditugu; esaterako, Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia, Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa edo ikasle egresatuen orla banatzeko ekitaldia. Ekitaldi hori Euskalduna jauregian ospatu genuen, lehen aldiz, lau graduatoko ikasleekin.





2023-2024 ikasturtean, 216 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskaini ditugun lau unibertsitate masterretan. Generoari erreparatuta, ikasle horietatik 108 emakumezkoak izan dira, eta beste 108, gizonezkoak.

2023-2024 ikasturtean, lau unibertsitate master hauek eskaini ditugu; haietatik bat berria da, gainera:

- Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra (2. edizioa).
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (15. edizioa).
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (4. edizioa).
- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra.

Unibertsitate masterrak	216 ikasle 108 emakumezko 108 gizonezko
Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra	17 ikasle
DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra	174 ikasle
Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra - MCOOP	17 ikasle
Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra - LIT	8 ikasle





## ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO TITULAZIOAK



Profesionalei zuzendutako bi titulazio eskaini ditu Fakultateak ikasturte honetan:

- Kooperatibagintzan aditu diploma (16. edizioa).
- Euskal Kulturaren Eragiletzan etengabeko prestakuntzako masterra (1. edizioa).

Aurtengo berrikuntza nagusia Etengabeko Prestakuntzako master berri bat abiatzea izan da: Euskal Kulturaren Eragiletzan masterra. Master horrekin, euskararen eta euskal kulturaren gaineko prestakuntza sustatu nahi izan dugu, bai herrian eta bai hezkuntzan gai horien gaineko garapena eta konpetentzia profesionala lantzeko asmoz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa izan dugu titulazio berria martxan jartzeko.

Etengabeko Prestakuntzako titulazioak: masterrak, aditu diplomak eta espezializazio diplomak	44 ikasle 31 emakumezko 13 gizonezko
Euskal Kulturaren Eragiletzan etengabeko prestakuntzako masterra	20 ikasle
Kooperatibagintzan aditu diploma	24 ikasle

## PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA



2023-2024 ikasturtean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak formakuntza eskaini du kooperatibismoaren, hezkuntza berrikuntzaren eta komunikazioaren jakintza arloetan.

Batetik, 6 ikastaro labur antolatu ditugu, eta 102 ikasle aritu dira. Hezkuntzaren eremuan, ikastaro hauek antolatu ditugu: Proiektuen diseinua lidergotza eta erraztailetza estrategikotik, Lan-taldean erraztailetza, Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategiak eta Koirakaskuntza esperientziak gelan. Kooperatibismoaren eremuan, beste bi antolatu ditugu: Fagor taldean murgiltzen eta Mondragon esperientzia kooperatiboaren gakoak. Komunikazioaren eremuan, Kolorearen kudeaketari buruzko ikastaro aurreratua eskaini dugu, ESCAC Escola Superior de Cinema i Audiovisuals de Catalunya-rekin batera.

Bestetik, zenbait prozesu eta prestakuntza antolatu ditugu profesionalak beren lan-eginkizunekin konektatuta prestatzeko; kasu gehienetan, lantokian bertan.

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak formakuntza kooperatiboa eman dio kooperatibetako zenbait eragileri: bazkide berriei, organo sozialetako kide berriei eta kooperatiba batzuetako bazkide/langile kolektibo osoei. 2023-2024 ikasturtean, honako kooperatiba hauetan eman du formakuntza: Ampo, Orkli, Danobat, Goizper, Fagor taldea, Ikerlan, Laboral Kutxa, Leartiker eta Ulma Packaging. Gainera, MONDRAGON taldeko askotariko kooperatibetako organo sozialetako kideei ere eman die prestakuntza. Guztira, 103 formakuntza saio izan dira, eta 2.060 pertsonak hartu dute parte.

Hezkuntzari dagokionez, zenbait ikastaro eskaini ditugu ikastetxe eta erakundeek eskatuta. Prozesu horietan, gai ugari garatu ditugu. Hizkuntzen eremuan, gai hauek izan ditugu, besteak beste: Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuen diseinua, hezkuntza eleaniztunaren testuinguruan hizkuntza konpetentzia garatzeko markoak (trataera bateratua, arloko alfabetatzea, gelako elkarrekintza...), hizkuntza idatziaren irakaskuntza... Kulturartekotasunaren eta aldaketa sozialen eremuan, honako gai hauek izan dira: euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko estrategiak,



herrietan hezkuntzaren estrategia bateratua adosteko lanketak eta prozesuak, genero estereotipoak eta hizkuntza ez-sexista... Zientzia, teknologia eta digitalizazioaren eremuan, berriz, honako hauek: digitalizazioaren gaineko gogoeta, begirada teknopedagogikoa, teknologia digitalaren eragina STEM markotik, bidelaguntza digitala, inklusio digitala... Azkenik, hezkuntza berrikuntzarekin eta alderdi metodologikoein lotuta, honako gai hauek landu ditugu, besteak beste: ebaluazioa ikaste-irakaste prozesuetan eragiteko, ikastetxearen berrikuntza pedagogikoa, alderdi metodologikoen eraldaketa, praktika pedagogikoaren gaineko hausnarketa, irakaslearen begirada, jolasa Haur Hezkuntzan... Guztira, 2.139 pertsonak hartu dute parte hezkuntzaren eremuan egindako prestakuntza proiektuetan.

## IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

2023-2024 ikasturtean, 27 ikerketa proiektu eta 47 transferentzia ekimen garatu ditugu. Datozen lerrootan bilduko ditugu ekimen aipagarrienak.

### IKERKETA

2023-2024 ikasturteko ikerketa jarduna hezkuntzan, komunikazioan, kooperatibismoan eta humanitateen eremuetan kokatu da. Lan esparru horietan, honako lan ildo hauek izan dira nagusi:

- Hizkuntzak eta kulturak eskolan eta gizartean.
- Gizarte zientziak, erronkak eta arrakalak.
- STEM eta digitalizazioa.
- Hezkuntza prozesuak.
- Kooperatibismoa.
- Humanitateak eta gizarte berrikuntza.



Hona hemen 2023-2024 ikasturtean bereziki deialdi konpetitiboetatik eratorritako ikerketa aipagarrienak:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
EU4DUAL - European University Alliance for Cooperative Education	Europar Batasuna	EU4DUAL hezkuntza duala oinarri hartzen duen europar aliantzaren barnean, gaiari buruzko ikerketa.
Analysis of the use of SELFIE WBL in a case in the Basque Country	European Commission, Joint Research Centre, Digital Economy	Selfie WBLren erabilera Euskal Herriko kasu jakin batean aztertzen duen proiektua.
Unfolding Collaborative Online International Learning Didactics (UCOILD)	Europar Batasuna	Graduko ikasleen bestelako nazioartekotze esperientziak sustatzeko proiektua.
Promover los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en las Cooperativas de Euskadi a través del despliegue de los Objetivos de Desarrollo Interior (ODI)	Eusko Jaurlaritza	EAEko enpresetan Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko deialdiaren barruan, GJH kooperatibetan sustatzeko moduetan sakontzeko proiektua.
Ikasleen Euskararen Ezagutza eta Erabileraren Garapena Huhezín: zenbait gradu eta campus aztergai	Eusko Jaurlaritza	Ikasleen euskararen ezagutzaren eta erabileraren garapena aztertzea helburu nagusi duen proiektua.
Arantzazulab ikerketa: demokrazia	Arantzazu Gaur Fundazioa	Gizarteari buruzko hausnarketaren barruan, demokraziaren kontzeptualizazioan sakontzeko egitasmoa.
Euskara eta kulturartekotasuna udalerrri eskaldunetan	Bizkaiko Foru Aldundia	Udalerrri eskaldunetan euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko moduetan sakondu nahi duen egitasmoa.
Jasangarritasun Hirukoitzza Gipuzkoan: baina zein etorkizun?	Gipuzkoako Foru Aldundia	Gipuzkoan, jasangarritasun hirukoitzari begira, trantsizio berriak eta etorkizuneko agertokiak irudikatzea helburu duen proiektua.
Debagoienan Elikadura Burujabetza: jangelen eraldaketa eta barazkien ekoizpenerako ekimen komunitarioa [Esperimentazioa-ekintzailatza komunitarioa eta sistematizazioa]	Gipuzkoako Foru Aldundia	Debagoienan elikadura burujabetza sustatzeko bidean, jangelen eraldaketa eta barazkien ekoizpenerako ekimen komunitarioa sustatu, esperimentatu eta sistematizatzeko proiektua.
MONDRAGON ZTIM HUB III: ZTIM bokazio eta jakintzak lantzeko HUB sarearen hedapena	Gipuzkoako Foru Aldundia	HUB sarearen hedapena baliatuz gazteengan ZTIM bokazio eta jakintzak sustatzeko proiektua.
STEMotiv: Lehen Hezkuntzan STEM bokazioak sustatzen, Gipuzkoako ehun enpresarial zientifiko-teknologiko-digitala indartzeko, adimen artifiziala eta big data baliatuz.	Gipuzkoako Foru Aldundia	Lehen Hezkuntzako ikasleen artean STEM bokazioak sustatzea xede nagusi duen proiektua.
LanHezi III: Enpresak eta Lanbide Heziketako ikastetxeak lankidetzan, Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoa eta etorkizuneko enpleguaren kalitatean eragiteko ezagutzaren sorkuntza	Gipuzkoako Foru Aldundia	Enpresa eta ikastetxeetako beharretatik abiatuta, pertsonen, ikasleen eta langileen gaitasunak garatzeko proiektua, norberaren garapenerako markoa ezarri, kultura eraikiz eta aurrera eramanez.
ENPLEGATZEN II: Etorkizuneko langileen enplegarritasuna indartzeko programa, escape rooma eta "gipuzkoHarrok" lehiaketa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Etorkizuneko langileen enplegarritasuna indartzeko programa bat, escape room bat eta lehiaketa bat balioztatzea helburu duen proiektua.
Pertsona erantzulea enpresa kooperatiboan III: sozializatorako eta inplementaziorako jauzia indartzen	Gipuzkoako Foru Aldundia	Ikerketa ekintza egitasmo baten bidez kooperatibetan erantzunkidetasunaren kultura hedatu bat garatzeko esku-hartze proposamenak sustatu, sozializatu eta inplementatzeko proiektua.
Lurralde lankidetzaz, interkooperazioa eta garapen iraunkorra: Fagor taldea eta MONDRAGONeko kasuen gaineko ikerketa-ekintzaren bigarren fasea eta hedapena	Gipuzkoako Foru Aldundia	Fagor taldeak eta Mondragonek lurralde lankidetzaz, interkooperazioa eta garapen iraunkorra sustatzeko egindako lana aztertu eta hedatzeko ikerketa-ekintzaren bigarren fasea.



## TRANSFERENTZIA ETA AHOLKULARITZA

Transferentzia eta aholkularitza proiektuei dagokienez, 47 proiektu gauzatu ditugu Fakultatean, hezkuntzaren, kooperatibismoaren eta gizarte berrikuntzaren jakintza arloetan.

Hezkuntzaren esparruan, ekarpena egin dugu etapa guztietan; alegia, HHn, LHn, DBHn, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Aholkularitza eta transferentzia proiektuek hezkuntza berrikuntza izan dute oinarri, eta askotariko gaiak jorratu ditugu: ikaste-irakaste metodologiak, eraldaketa digitala, hizkuntzen trataera integratua, ikaskuntza sakona, parte-hartzea, hezkidetzak, ebaluazioa eta konpetentzia markoa, besteak beste. Are gehiago, ikastetxeen eremutik harago, hezkuntzaren eta komunitatearen arteko harremana jorratu dugu zenbait transferentzia ekimenetan. Aipatzekoa da euskara eta, kasu batzuetan, horrekin batera kulturartekotasuna sustatzeko prozesuetan egindako ekarpena.

Kooperatibagintzaren eta gizarte berrikuntzaren esparruan, askotariko transferentzia ekimenak garatu ditugu: gizarte berrikuntzaren arloko aholkularitza, komunikabideen balio soziala, kooperatibentzako formakuntza kooperatiboaren diseinua eta inplementazioa, gizarte eraldaketaren inguruko hausnarketa prozesua enpresa kooperatiboetan, edo bazkide berrientzako eta organo sozialetzako formakuntza kooperatiboa. Halaber, aipatzekoa da garapen jasangarrirako helburuekin eta ekintzailtza sozial-kooperatiboarekin lotuta egindako lana.





Hona hemen aholkularitza eta transferentzia ekimen aipagarri batzuk:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Acompañamiento en el proceso de innovación pedagógica de Egibide 2023-2024	Egibide - Fundacion Diocesanas Jesus Obrero Fund.	Egibideko berrikuntza pedagogikoari buruzko aholkularitza.
Alea eta Argia aldizkarien balio sozialaren kalkulua	EHU	Alea eta Argia aldizkarien balio sozialaren kalkulua egitea.
Arrasateko hezkuntza esparru formaleko zein ez-formaleko hezkuntza eragileekin diagnostiko partekatua	Arrasateko Udala	Arrasateko hezkuntza esparru formaleko zein ez-formaleko hezkuntza eragileekin diagnostiko partekatua egitea.
Curriculum berria oinarri izanik ebaluazio eta ikas-egoeretara bidean	Trueba ikastetxea	Curriculum berriarekin koherentzia, ebaluazioa eta ikas-egoeretara egokitzeko aholkularitza.
Ikaslearen irteera profila hizkuntza proiektuan ardatz	Kristau Eskola (COAMI Amor Misericordioso ikastetxea)	Hizkuntza proiektuan ikaslearen irteera profila lantzeko prozesua.
Bertsozale Elkarteko bertsolari-irakasleen prestakuntza gogoetatsua gelako praktiken analisietatik abiatuta	Bertsozale Elkartea	Gelako praktika gogoetatsua oinarri moduan hartuta, bertsolari-irakasleen garapenerako prozesua.
Seguimiento de la implementación de LH1 + formación del profesorado	Larrun	Inplementazioen jarraipena eta irakasleen prestakuntza.
Errenteriako hezkuntza komunitatea saretuz, erantzukidetasunean sakontzen proiektua	Errenteriako Udala	Errenterian hezkuntza komunitatearen erantzukidetasunean sakontzeko prozesua.
Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako alderdi metodologikoen lanketa	Iraurgi	Iraurgi ikastetxean Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako alderdi metodologikoen lanketa.
Durango hezkuntza erronkak eta ekintza planen diseinua	Durango Udala	Durango, hezkuntza erronkei heltzeko ekintza planen diseinua.
Mintzola egitasmoa	Euskaltzaindia	Euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzeko prozesua.
Ikastaroen diseinua irizpide teknopedagogikoak eta kompetentzien garapena kontuan izanda	UHEI	Irizpide teknopedagogikoak eta kompetentzien garapena kontuan izanik, ikastaroak diseinatzeko aholkularitza.
Koirakaskuntza: oinarriak eta eginbideak 2023-2024	EHI	Koirakaskuntzaren oinarriak eta eginbideak joratzeko prozesua.
Euskararen erabilera eta kulturartekotasuna Zaldibiako Hezkuntza Komunitatean	Zaldibiako Udala	Hezkuntza esparruan euskararen erabilera sustatzeko prozesua kulturartekotasuna aintzat hartuz.
Ikaste-objektuen ulermen eta ikaskuntzarako estrategiak	Iñigo Aritza ikastola	Ikaste-objektuen ulermen eta ikaskuntzarako estrategien lanketa.
Berba-lapiko. Garapen metodologikoa ahozko kompetentzietan aurrera egiteko	Soziolinguistika Klusterra	Ahozko kompetentzia sustatzeko garapen metodologikoa bilatzen duen transferentzia ekimena.



## ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA

2023-2024 ikasturtean, guztira 74 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 31 artikulu, 9 liburu eta 16 liburu kapitulu argitaratu ditugu inpaktu altu eta ertaineko aldizkari edo argitaletxeetan. 21 argitalpen euskaraz izan dira.

Argitalpen zientifikoak	74
Artikulu zientifikoak	31
JCR, SJR, CiteScore, CIRC A edo B, CARHUS+ A edo B	16
CIRC C edo D, CARHUS+, INRECS, LATINDEX, MIAR...	14
Bestelakoak	1
Liburuak	9
SPI	3
Liburu kapituluak	16
SPI	12
Kongresu eta jardunaldietako komunikazioak	12
Kongresu aktak (argitaratuta)	5
Argitaratu gabe	7
Dibulgaziorako argitalpenak	1
Bestelakoak	1
Tesiak	1
Horietatik:	
Euskaraz argitaratutakoak	21
eBiltegian	27
Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta	32

Argitalpenez gain, ikasturte honetan, ikerketa proiektuekin lotutako 26 ekitaldi antolatu ditugu. Gainera, ikerketari buruzko 10 prestakuntza mintegi egin ditugu ikasturtean zehar.

## HIRUGARREN ZIKLOA: DOKTOREGO PROGRAMA


2023-2024 ikasturtean, 27 lagun matrikulatu dira Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera eskaintzen dugun Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programan. Haietako hiruk ikerketa prestakuntza osagarria egin dute doktoregoaren barnean.

Bestalde, aipatzekoa da doktorego programaren araudia egokitu dugula, doktoregoko ikasketak arautzen dituen Errege Dekretura egokitzeko.

Horrez gainera, ikasturte honetan, Eskoriatzan egin dugu doktorego programaren 11. jardunaldia. Bertan, hizpide izan dira doktorego industrialak eta unibertsitatearen eta gainerako hezkuntza erakundeen arteko harremanak.

Azkenik, aipatzekoa da doktoregai batek tesiaren defentsa egin duela 2023-2024 ikasturtean.





### 3. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA





Arlo ekonomiko-finantzariora etorrira, 2023-2024 ikasturteko sarrerak 13.746.882 eurokoak izan dira, eta gastuak, berriz, 13.533.471 eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 213.411 eurokoa izan da.

GASTUAK:

**13.533.471 €**

SARRERAK:

**13.746.882 €**

EMAITZA:

**213.411 €**

Ikasturte honetan, 1.081.732 euroko inbertsioak egin ditugu, nagusiki egite bidean dagoen Aretxabaletako campusaren hedapenera eta Eskoriatzako Nagusia eraikineko klaustroaren segurtasun egokitzapenera bideratuta. Finantzaketa gehiena berezko funtsetatik edo funts propioetatik etorri da, eta portzentaje txiki bat Gizabidea Fundazioak finantzatu du.

Balantzeari dagokionez, egoeraren balantzearen aktibo eta pasiboa 17.016.272 eurokoa zen 2024ko abuztuaren 31n.







# 4. KUDEAKETA ORGANOAK



## ANTOLAKETA EGITURA

**DEKANOA:** Nagore Ipiña

### ZUZENDARITZA KONTSEILUA

Nagore Ipiña: Fakultateko dekanoa

Aitziber Arregi: Zuzendari akademikoa

Iñaki Larrea: Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria

Ainara Artetxe: Hezkuntza Berrikuntzaren arloko zuzendaria

Xabi Igoa: Komunikazioaren arloko zuzendaria

Ainara Udaondo: LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiko zuzendaria

Karmele Perez: Profesionalen Prestakuntzako zuzendaria

Ainhoa Leturiaga: Administrazio eta Finantzetako zuzendaria

### KONTSEILU ERREKTOREA

Amaia Agirre: Lehendakaria

Nekane Arratibel: Lehendakariordea

Amaia Torrealday: Idazkaria

### BOKALAK:

Aitor Zuberogoitia

Igor Ortega

Miren Erdozia

Javier Marcos

Edorta Barandiaran

Urko Retegi

Julen Olaizola

Amets Arexolaleiba

Auritz Loidi







## 5. FAKULTATEKO LANGILEAK



5 GENDERO BERGINTASUNA

8 LANDIRUNA ETA HAZKUNTZA EKONOMIKOA





Hau guztia ez litzateke posible izango ikasturtean zehar proiektu honetan inplikatu eta parte hartu duten lagun hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

- Agiriano Beitia Jaione
- Aguirre Garcia Nerea
- Alberdi Ruiz De Alegria Amaia
- Aldabaldetrekuz Gonzalez De Txabarri Rita
- Alonso Amezua Idurre
- Altuna Morcillo Saioa
- Alvarez Huerta Paula
- Alvarez Santillan Isabel
- Amesti Urien Nerea
- Anton Ustaritz Eneko
- Apraiz Ansola Marikarmen
- Apraiz Larruzeta Itxaso
- Aramendia Echeverria Olatz
- Arana Arrieta Goio
- Arebitorre Landeta Eunate
- Arias Hermoso Roberto
- Aristi Narbaiza Jon
- Arratibel Insausti Nekane
- Arregi Landa Itziar
- Arregui Iribecampos Aitziber
- Arregui Murguiondo Xabier
- Arrese Errasti Gotzone
- Arriaran Olalde Iñigo
- Arroyo Sagasta Amaia
- Arteta Elguezua Joseba
- Artetxe Aranaz Ainara
- Astigarraga Agirre Idoia
- Astigarraga Iriondo Amaia
- Asurmendi Garcia Nerea
- Azcarraga-Urizar Ugarte Itziar
- Azkarate Iturbe Oxel
- Azkue Lete Iker
- Azpeitia Eizaguirre Agurtzane
- Azpitarte Astobiza Amaia
- Barandiaran Arteaga Alexander
- Barnes Julia Diana
- Barquin Lopez Amelia
- Bartolome Urquiola Julen
- Baztan Miguel Asier
- Beitia Sasiain Loredi
- Belategi Unzueta Onintza
- Bergara Eguren Jokin
- Biaian Igartua Maite
- Biain Bidarte Amaia
- Bilbao Eraña Ainara
- Bonilla Bermejo Mari Carmen
- Caballero Ramirez Izaskun
- Cabello Perez Susana
- Cancio Orueta Leire
- Carmona Igartua Unai
- Carpintero Martin Ana
- De La Iglesia Gamboa Egoitz
- Doistua Zelaia Ane
- Echaburu Osa Mikel
- Egaña Osa Txema
- Egizabal Ollokiegi Diego
- Eizagirre Iribar Garazi
- Eizaguirre Eizaguirre Andoni
- Elorza Gogenola Eztizen
- Elustondo Astigarraga Izar
- Escandon Lucea Eunate
- Esnaola Recondo Alaia
- Esquibel Montero Nagore
- Etxebeste Liras Onintza
- Fallon Mary Sinead
- Fernandez Elorz Miren Eukene
- Flores Puga Beñat
- Galdos Alberdi Zorione
- Galindez Nafarrate Edurne
- Gallardo Bolaños Entxo
- Galparsoro Garcia Rosa
- Garcia Fernandez Letizia
- Garitano Laka Paulo
- Garmendia Gomez Malen
- Garro Larrañaga Eneritz
- Gastañazatorre Gorrochategui Idurre
- Goikoetxea Agirre Nekane
- Gomez Aguirrebeitia Aintzane
- Gonzalez Arenaza Ainhoa
- Gonzalez Atucha Patricia Aranzazu
- Gorrotxategi Alberdi Julene
- Gostin Elorza Andres
- Guridi Bikuña Amaia
- Higuero Fuentes Andrea
- Ibarrondo Del Canto Asier
- Igoa Eriz Xabier








## Langileak 164

Emakumezkoak: 112 ●

Gizonezkoak: 52 ○

\* Ez-bitarrak: datu hori ez zen jaso.



- Imaz Aguirre Ainara
- Imaz Alias Oier
- Iñurrategi Irizar Nagore
- Iñurritegi Leon Nekane
- Ipiña Larrañaga Nagore
- Irizar Mezo Asier
- Iturralde Alberdi Xabier
- Izar de la Fuente Diaz de Cerio Iker
- Jimenez Arrieta Olaia
- Jimenez de Aberasturi Zapatero Sara
- Juaristi Olaechea Itxaro
- Kanpandegi Berrotaran Aritz
- Kapelastegi Osoro Ibane
- Kareaga Irazabalbeitia Arianne
- Kortabarria Urain Iñigo
- Laparra Guillen Iker
- Larrañaga Elorza Ainhoa
- Larrea Arana Mireia
- Larrea Hermida Iñaki
- Lasa Zuzuarregi Gurutze
- Laskurain Bidaburu Leire
- Lauzurica Arrondo Asier
- Leceta Ruiz De Alegria Ion
- Lersundi Perez Amaia
- Leturiaga Letona Ainhoa
- Longarte Arriola Joseba
- Lopez Salas Nerea
- Loyola Idiaquez Aitzol
- Mansouri Talbi Oumaima
- Markuleta Ugarte Ane
- Martinez de Lagos Menique Aitziber
- Martinez Gorrochategui Agurtzane
- Mata Oyanguren Oihana
- Mentxakatorre Odrozola Jon
- Molinero Izaguirre Jokin
- Mondragon Ibañez Eneritz
- Mongelos Garcia Arantza
- Olea Garramiola Lur
- Ormaetxea Jauregi Unai
- Ortega Sunsundegui Igor
- Otaduy Marauri Oihana
- Otaegi Etxezarreta Iñigo
- Ozaeta Elorza Arantza
- Pagoaga Zaloña Itsaso
- Pascua Martin Cristina
- Pavon Arrizabalaga Amaia
- Perez Lizarralde Karnele

- Portilla Zaldibar Unai
- Quintas Quintas Marta
- Ranero Gonzalez Iñigo
- Rekalde Perea Irene
- Rodriguez Garitano Jone
- Romero Garmendia Irati
- Rozas Elizalde Ixiar
- Ruiz de Austri Arexolaleiba Marixe
- Ruiz de Azua Galdos Edurne
- Sagardia Iturria Irati
- Salegi Arruti Eider
- San Millan Amezaga Aitor
- Sanchez Lasa Xabier
- Sanchez Moran Yera
- Sanchez Murueta Aritz
- Santa Cruz Elorza Sirats
- Sarasua Marichalar Jon
- Sarobe Egiguren Aitziber
- Toledo Delgado Usoa
- Torrealday Gallarreta Amaia
- Torres Lete Maialen
- Udaondo Alberdi Ainara
- Ullibarriarana Garate Mikel
- Unamuno Eguia Saioa
- Uriarte Iñurrategi Xabier
- Uriarte Zabala Leire
- Urionaguena Fernandez Mikel
- Urizar Zugazagoitia Ane
- Urkia Guridi Iraia
- Urquia Basterra Iraia
- Urzelai Vicente Ainhoa
- Videgain Aire Eneko
- Villada Rodriguez Arrate
- Vitoria Gallastegui Jose Ramon
- Zabala Ibarra Ane Miren
- Zabaleta Mendikute Garazi
- Zarate Herrero Leire
- Zarrabeitia Salterain Endika
- Zuazubiskar Iñarra Ane
- Zuberogoitia Espilla Aitor
- Zuberogoitia Kaltzakorta Miren
- Zubia Zubizarreta Nerea
- Zubizarreta Pagaldai Ane
- Zufiaurre Astigarraga Mirene





**Mondragon  
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea**


Dorleta z/g  
20540 ESKORIATZA  
Gipuzkoa  
Tel. 943 71 41 57  
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31  
20550 ARETXABALETA  
Gipuzkoa  
Tel. 943 71 31 40  
harrera.huhezi@mondragon.edu

Olagorta kalea 26 (Zorrotzaurre)  
48014 BILBO  
Bizkaia  
Tel. 943 71 41 57  
harrera.huhezi@mondragon.edu



[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)



ENTITATE LAGUNTZAILEA

